

Hizpideak


Itsukeriak preso

Iñaki Petxarroman
ipetxarroman@berria.info

ETA desagertu arte presoek «arau-dian dauden espetxe onurak» ezingo dituztela eduki adierazi du Jorge Fernandez Diaz Espainiako Barne ministroak Rodolfo Ares EAEko Barne sailburuarekin Bilbon egindako bilaren ondoren. Adierazpenok oso panorama txarra agertzen dute. Batetik, agerian uzten dutelako Euskal Herrian sortu den egoera politiko berrian Madrilek dituen ardurei bizkar ematen jarraituko duela; eta, bestetik, etsipena

zabaltzen dutelako. Izan ere, herritarrek nahi dute prozesu politikoak aurrera egitea. Nahi dute ezker abertzaleak eta ETAk alde bakarrez hartutako erabakiak finkatzea eta bake prozesua egonkortzea. Eta, horretarako, espetxe politika aldatzea ezinbestekotzat jotzen dute, Bilboko manifestazioan agerian utzi zuten bezala.

Ministroak azaldu beharko luke zergatik jarraituko duen euskal presoek espetxe onurak ukatzen, legezkoak badira. Eta jakin beharko luke zigor politika horri eutsita euskal gizartea gero eta urrutiago edukiko duela; presoak Euskal Herritik bezain urruti gutxienez.



Hitz beste
Anjel Lertxundi

Ordu-denda


Aspaldi zaharrea irakurri zuen Leteren lehen liburua, tituluan *Orduen gurgilean* esaten duena. Baina eskarmentuak irakatsi dionez, denbora faltaren gurgilean bizi da bera. Ez da iristen, laburregiak egiten zaizkio egunak eta gauak. Berari laguntzeko sortuak omen diren trepetek areago kateatzen dute, bere denboraren lapur balar bezala sentitzen ditu.

Ordulariari begiratu dio. Suspirio bat. Erloju dendak dauden bezala, ordu-dendak ere baleude; orduak erostetik balu, itota dabilenerako; erositako orduekin arintzerik baleuka iritsi ezin ia egunerokoa...

—E, aizu, bi ordu, bihar gauerako. Orduak iazko prezio berean segituko du, ezta? Ederki, jarri biak, mesedez... Larrutik daki, ordea, denbora ezin dela aurreztu, ez dela biltegietan pilatzen den gaia, ezin dela pakete batean bildu opari bat egiteko. Hala ere, ordu-denden ametsetan bizi da. Horrek ere zenbat lotuko lukeen, ez zaio burutik pasatzen.

Zaldieroa

De Rerum Natura



Zaldieroa@zaldieroa.com

Pinguinoa

Aro Berria deritzon hori zehazki noiz hasi zen esaten ez nuke jakingo, baina pinguinoa lagun egiteko animaliatzat hartzeko prest gaudenez gero, ontzat emango dugu bizi, bizi dugula aro berri bat.

ETAk jardura armatua behin betiko uztea erabakigarria izan da, inondik ere, aro hau adjektibatzeneko orduan, ez ordea motibo bakarrra. Gernikako Akordioa, hainbat alderdi abertzale eta ezkerrekoren bat-egite estrategikoa, Aieteko konferentzia, Bilboko manifestazioa eta askok eta askok berbaz itxura bat ematen asmatzen ez dugun sentimendu hori daudeke, besteak beste, aldarnioei eusten. Dei diezaigun bada Aro Berria, behinolako Haize Berriak hura baino hobea izango delakoan, Amuriaz zioen moduan, haizeak pluralen datozenean bakarraren libramendua askoren kaltetan izaten baita.

Edozelan ere, dakargun gogora gure hesteen askapenaren aldarria lau haizetara zabalduko zuen lapikokoari Gernikan gehitu zi-



Larrepetit
Unai Iturriaga

Txiki Muñoz denak handira jokatzeko, Etxaide auzoa ulertzen ez duela, Gernikako Akordioan ELAren hiru letrak falta eta gehiengo sindikala hautsita

tzaizkiola sakramentuak joan den mendearen azken putzetan.

LABekin batera indabak bezperen bezperetatik beratzen jarrita, estatutua hilda zegoela aldarrikatu zuen ELAk. Hala bazen, estatutua hilda eta gehiengo sindikala sukaldari, biribilketa alegar ibili ginen heste-tutuetan haize berriak genituela aldi baterako.

Geroztik, makina bat urtean, haizeak nondik jotzen zuen ez genekiela, mesetako haizeen, frantziparren, nordeen, Corellako ziertzoen eta hamaika ego-haizekapritxosoren menara ibili gara bals dorpean. Ate ondoko haizeak hartzen gehienetan, ez zela haizerik sartzen, maitea, ez zebilenetan.

Eta orain, Aro Berria gauden honetan, mundua hankaz gora. Txiki Muñoz denak handira jokatzeko, Etxaide auzoa ulertzen ez duela, Gernikako Akordioan ELAren hiru letrak falta eta gehiengo sindikala hautsita. Inork zergatiak azalduko balizkit, eskertuko nioké. Nik dakidana da esnatzen naizenan, artean, pinguinoa hor dagoela.

Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Jone Forcadari eta seme-alabei gutun irekia

Txillardegi ezinbestekoa idatzi du Joseba Permach lagunak.

Gauza bera esan genion Maiteri, Txominen alargunari, horren heriotzaren ondoren gure dolumin sentikorrena adieraztearren bere Miarrizteko etxera Itziarrek eta biok bisita egin genionean.

Izan ere, Errepublika garaian ANVko zinegotzia izan zen gure aitarengandik inoiz jaso dudari aholkurik argiarenak zehatz adierazten zuen abertzale orok ohartu behar genuenaz, hots: gure bizitza, nahiz eta oso luzea izan, ez dugu sekula neurritzat hartu behar, jakinda Euskal Herriarena mendez mendekoa dela. Norberak bere garaian ahal duena egiten badu, Euskal Herriak ezinbestez badu geroa.

Egia baita, Xanti Brouardek salatzen zuenez, abertzale epelak maiz norberaren premiaren

aitzakiaz bazterturik uzten ditu herriaren interesak. Txillarri, al-diz, bere bizi luze horretan esku-zabaltasunez eta kemenez erdugarri izan denari, gaur egun denok, arerio askok barne, aitortzen diogu bizirik izan den bitartean ukatu zaiona. Agur eta ohore zuei ere bihotzez.

Koldo Gorostiaga.

Haizea

Haizeak, bortizki jotzen duenean, hostoak inongo gupidarik gabe eramaten ditu aurrean. Baina haizeak ez daki zenbat eta gogorrago jo orduan eta lotuago egongo garela gu, horma bat sortuz gogorrago jotzen duenerako. Eta gogorrago jotzen badu, gehiagoren artean berreraikiko dugu eroritako horma; horrela ibiliko gara horma erraldoi, suntsiezin eta gogor bat eraiki arte.

Etxean nahi zaitugu, Ekaitz. Igor Goikoelea Larrauri. Gasteiz.